


MEZUA



JOSEBA OLALDE

Inguru berde gutxiko zonetako ezaugarriak islatu dituzte logotipoaren egileek. Argazkian, Araba Euskaraz La Puebla de Labarkan, 1999an.

Logotipo berezi eta adierazgarria

«Jaiotzear dagoen zerbait»
islatu nahi izan du Xabi
Gorostiagak anagramarekin

Iaz bezalaxe, aurtan ere Laudioko Tramtraffic enpresari egokitu zaio Araba Euskaraz-eko anagrama egitea. Xabi Gorostiaga diseinatzaileak asmatu du logotipoa eta leloa, hain justu ere aurtengo Ibilaldiaren anagrama modernoaren egile berak.

Gorostiagak EGUNKARIARI esan dionez, aurtengo Araba Euskaraz-eko anagrama egitea eskatu ziotenean, baldintza bakarra jarri zioten: «sinplea» behar zuen izan. Eta hala egiten saiatu dela aitortu digu. Kontuan hartuz aurtengo jaia «berezia» dela, Trebiñon delako eta ikastolarik ez dagoelako, logotipoak sinplea baina era berean «adierazgarria» izan behar zuela argi zuen.

Anagramaren bidez, «jaiotzear dagoen zerbait» islatu nahi izan du Gorostiagak. Alegia, Argantzunen haurrentzako gelak sortuko direla esan nahi du, eta horretarako, anagramak eta leloak zerikusi handia dutela na-

barmentzen du. «Orain landatuko dugun haziak bere uzta emango du aurki, alegia, orain hasiko gara ereiten ikastola berri baten proiektua», dio Xabi Gorostiagak.

Trebiñoren ezaugarri geografikoak islatu ditu

Logotipoan, gari bat ageri da, kolore argiz margotua. Hondoan, hori kolorez dago eta lurra, berde eta marroia da. Zeruan, berriz, eguzki potolo bat dago. «Lurrak, gariak eta eguzkiak adierazi nahi dutena da Trebiño Arabako eta, oro har, Euskal Hérriko inguru berde gutxien dituen eskualdeetako bat dela». Koloreen bitartez, beraz, zonaldeko ezaugarriak islatu ditu Gorostiagak, horregatik, okre eta gorrixka koloreak dira nagusi.

Duela urtebete proposatu zioten Tramtraffic enpresari aurtengo Araba Euskaraz-i logotipoa jartzea; iaz Laudion egin zen festa, eta diseinu enpresa bertakoa denez, orduan



ADRIAN DIAZ DE TUESTA

Antolatzaileak, aurtengo logotipoarekin, jaiaren aurkezpenean.

ere ardura beraiek hartu zuten. Beste urteekin alderatuta, denbora gutxiago erabili du Gorostiagak anagrama egiteko. Iazko Gabonak baino lehenago hasi zen guztia prestatzen, eta duela hilabete arte ez da logotipoa

kalera atera. Horrez gain, azpimarratu behar da aurtan kultur jarduerarik ez dela izan, eta horregatik, azken unea arte ez dela Araba Euskaraz-eko anagramarik atera.

Gauzak horrela, abestia, bi-

LELOA

Euskararen hazia erein

Arabako ikastolen jai nagusiaren aurtengo leloak —*Hazteko erein*— lotura handia dauka anagramarekin. Izan ere, gauza biak batera joan direla esan digu egileak, Xabi Gorostiagak. «Orain hasten gara ereiten gero haziko den uzta». Ideia horrekin, ikastola berria irekitzeko asmoa agertu nahi izan dute.

Leloa laburra izateak bere garrantzia baduela azpimarratu du Gorostiagak. Komunikazioaren ideietako bat da mezuak laburrak eta erakargarriak izatea, eta ideia hori hartu eta aurtengo jaiaren anagraman praktikan jarri du. «Gaur egun komunikazioan saturazio handia dagoenez, hobe da leloak eta mezuak laburrak izatea, gogoratzeko errazagoa delako».

Lelo baten esan nahi dena azaltzea lan erraza ez dela argi dago, eta horregatik, «askotan leloetan erdi ponentziak egiten dira, eta hori akats bat da». Gorostiagak argi dauka aurtengo leloa «ongi» ulertuko dela, leloa mezu askorekin doala-ko.

Halaber, Xabi Gorostiagak azaldu du komunikazio kanpainak «orokorrak» behar dutela izan, eta elementu guztiek lotura izan behar dutela mezua hobeto uler dadin. Ez dago dudarik aurtan helburua lortu dutela.

deoa eta webgunea azken txanpa arte ez denez aurkeztu, horrek lasaitasun handiagoa eman dio diseinatzaileari bere lana egiteko.

Lan talde bat enpresaren atzean

Tramtraffic enpresa aski eza-guna da jada Euskal Herrian. Bai, bederen, hainbat ikastolaren jaien munduan. Izan ere, denbora nahikotxo daramate Ibilaldia, Kilometroak eta Araba Euskaraz-eko logotipoak eta leloak egiten.

Gorostiagak azaltzen duenez, Tramtraffic enpresaren atzean lan talde bat dago. Duela sei urte sortu zen, Laudion, eta produkzioaren munduan lan ugari egiten dituzte. Xabi Gorostiaga orain dela urtebete sartu zen enpresan, eta Laudion ospatu zen jairako anagrama egin zuen; izan ere, ikastola-ko ikasle ohia denez, egoki iruditu zitzaion ardura berak hartzea.